KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

1. XEDEA
XFERA MÓVILES SAU (CABLEMÓVIL) (Helbide soziala: Parque Empresarial ¨La Finca¨, Paseo del Club Deportivo, 1, Edif. 8, 28223 - Pozuelo de Alarcón, (Madril, Espainia). IFKa: A82528548) Telekomunikazio-operadore bat da, eta hurrengo klausulan deskribatzen diren zerbitzuak ("Zerbitzua" edo "Zerbitzuak") eskaintzen ditu.

Kontratuaren baldintza orokor hauek ("KBO") arautuko dituzte zerbitzuaren bezeroaren ("bezeroa") eta CABLEMÓVILen arteko harremanak, kontratatutako zerbitzuei dagokienez. Zerbitzuak aktibatu aurretik, bezeroak KBOak irakurri behar ditu, eta horiek irakurtzeak esan nahi du KBO horietan sartzen diren xedapen guzti-guztiak onartzen dituela argi eta garbi. CABLEMÓVILen www.cablemovil.es webgunean ere argitaratuta daude horiek denak ("gure "webgunea"").

2. ZERBITZUEN DESKRIBAPENA Banda zabaleko Internetera sartzeko zerbitzua: Zerbitzu honetan hauek sartzen dira, erabiltzen den teknologia edozein dela ere:
(i) Banda zabaleko Interneterako sarbidea, 24 orduko nabigazioarekin, kontratatzen den abiaduran. Zerbitzuaren ezaugarri teknikoak direla eta, abiadura hori gehienekoa da, hau da, MÁSMÓVILek ezin du bermatu bezeroak kontratatutako sarbide-abiadura izatea une oro; eta (ii) zerbitzu gehigarriak.
Zerbitzuak azken bezero gisa soilik eskaintzen zaizkio, eta fede onean oinarritutako erabilera baterako. Besteak beste —adibideak dira, ez zerrenda itxia—, ez dago baimenduta:

a) Erabiltzean Espainiako legeek diotenari aurka egitea, edo hirugarrenen eskubideak haustea, edo bezeroaren erabilera pertsonalerako eta partikularrerako baino ez diren Zerbitzuen erabilera ona urratzea, Zerbitzu horietarako sarbidea kontrolatzeko ardura izanik.
b) Bortitza, lizuna, abusuzkoa, ilegala, arrazista, xenofoboa edo difamatzailea den edozein eduki argitaratzea edo transmititzea.
c) Beste erabiltzaile batzuen datu pertsonalak jasotzea edota erabiltzea, hark berariaz emandako adostasunik gabe edo Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren aurka joanda.
d) Trafikoa edo Zerbitzuak birsaltzea edo edozein bide edo sistemaren bitartez merkaturatzea edo ekonomikoki ustiatzea.
e) Deiak bideratzeko zenbakiekin komunikatzea, hau da, deia jaso den zenbakitik beste zenbaki batera bideratzea zerbitzu komertzial gisa eskaintzen duten zenbakiekin.
f) Objektiboki irregularra edo iruzurrezkoa den modu batean erabiltzea zerbitzuak, hala nola: "haurtxoak zaintzeko gailua"; "walkie-talkiea"; soil-soilik edo gehienbat tarifa gehigarriko zerbitzuetara edo balio erantsiko zerbitzuetara deitzea; zerbitzuak eskatu ez diren komunikazio komertzialen bidalketarako erabiltzea; mezu handiak bidaltzea kanpoko zerbitzuak blokeatzeko; eskatu ez diren komunikazioak egitea, trafiko irregulartzat jo badaitezke. Bereziki, bezeroak ezin izango ditu zerbitzuak erabili eskatu ez diren mezuak edo mezu masiboak bidaltzeko ("spam"), eta ezin izango ditu posta-zerrendak erabili halako prozesu batean sartzeko baimenik eman ez duen norbaiti ezer bidaltzeko. Kasu horietan, CABLEMÓVILek kontratua suntsiarazi ahal izango du, edo

zerbitzuak denbora batez blokeatu zerbitzuaren erabilera irregularraren egoera argitu arte, edo tarifa aldatu, bezeroari aldez aurretik jakinarazita.

Azken kasu horretan, bezeroak kontratua suntsiarazi ahal izango du zerbitzu zehatzari dagokionez, kontratuan adostutako baldintzetan.

3. TARIFAK, FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETAK

Zerbitzuen prezioak eta karguak, uneanunean, indarrean dauden tarifen, gainerako baldintza orokor edo partikularren eta eskaintzen edo sustapenen arabera dagozkienak izango dira. Tarifetan edozein aldaketa eginez gero, bezeroari jakinaraziko zaio, CABLEMÓVILen ustez egokia den edozein bidetatik, bezeroak aldaketa horren berri izan dezan eta tarifa berriak zein diren jakin dezan. Bezeroak beti edukiko ditu tarifa horiek eskuragarri, gure webgunean. Larrialdietako zerbitzuetarako sarbidea doakoa da.
Faktura hilerokoa izango da, eta oinarrizko Zerbitzua eta kontratatutako gainerako zerbitzuak adieraziko ditu, Zerbitzu bakoitzaren barruan fakturatutako kontzeptuen arabera xehakatuta, tartean ekipoen salmentari edo lagapenari/alokairuari dagozkien kontzeptuak sartuta. Arrazoi teknikoak direla-eta ezin bazaizkio bezeroari zerbitzuak fakturatu sortzapenaren ondorengo hilabetean, CABLEMÓVILek hurrengo hilabeteetan fakturatu ahal izango dizkio.
Abonu-kuotak hilabeteka fakturatuko dira, hila amaitutakoan. Neurtutako zerbitzuak hilabeteka fakturatuko dira, aurreko hilean egindako kontsumoaren arabera. Aurretik esandakoak ez du eragozten kontratuaren baldintza orokor hauetan zerbitzu bakoitzerako jasota dauden kontratu-baldintza espezifikoetan adierazitakoa.
Lehen fakturan, alta-kuota, aktibatze-kuotak eta, kasua bada, instalazioaren edo mantentze-lanen kuotak ere sartuko dira. Dagokionean, erositako ekipoen prezioa eta zerbitzuak konfiguratzearena ere jasoko dira, salbu prezio horren ordainketa geroratuta edo atzeratuta badago, kasu horretan lehen hilabeteari dagokion zati proportzionala sartuko baita, ordainketa geroratuko den hilabete-kopuruaren arabera. Era berean, zerbitzua aktibatzen den unetik fakturatutako epearen barruan aplikatu beharrekoak diren kuota errepikariak sartuko dira.
Bezeroak eskubidea du ordainketa-bide bat aukeratzeko, trafiko komertzialean erabili ohi direnen artetik. Banku-helbideratzeaz bestelako ordainketa-bide bat erabiltzeko (hori erabiliko baita lehenespenez, baldintza partikularretan besterik adierazi ezean), harremanetan jar daiteke Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuarekin. Bezeroak fakturazioagatik erreklamazioren bat jartzeak ez du justifikatzen erreklamatutako fakturak ordaintzean atzeratzea.
Bezeroaren betebeharra da fakturak ordaintzea mugaegunera iristean. Bezeroak faktura ordaintzen ez badu, eta kasu zehatza aztertu ondoren, CABLEMÓVILek Bezeroari zordundu ahal izango dizkio ez ordaintzeak eragindako gastuak, baita ez-ordaintze horren ondorioak ere, ordainagiria itzultzeko gastuak eta berriz konektatzeko kostuak barne. Ordaindu ezean aplika daitezkeen karguak www.cablemovil.es webgunean daude.
Hori guztia egin daitezkeen beste ekintza batzuei kalterik egin gabe, hala nola berandutza-kobrantza (diruaren legezko interesa gehi bi puntu) edo bezeroaren datuak kaudimen- eta kreditu-fitxategietan sartzea.
Zordundutako zenbatekoak kobratzeko, bezeroak berak emandako kreditu- edo

zordunketa-txartelei buruzko datuak erabili ahal izango ditu CABLEMÓVILek, bezeroak horretarako baimena ematen badu. Era berean, baldintza partikularretan legeak onartutako kasuetarako ezarritako gordailuak, fidantzak edota gainerako bermeak bereganatu ahal izango ditu CABLEMÓVILek. KBOak onartuta, bezeroak CABLEMÓVILi berariazko baimena ematen dio zerbitzuari dagozkion fakturak formatu elektronikoan igortzeko (faktura elektronikoa). Bezeroak edozein unetan erreboka dezake adostasun hori, eta fakturak paperean eta dohainik igor diezazkiotela eskatzeko eskubidea izango du. Errebokatze hori egiteko, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari jakinarazi beharko dio idatziz.

Kontratu-harremana bukatzen denean, kontratazio-modalitatea edozein dela ere, bezeroaren aldeko saldoa badago, bezeroak eska dezake saldo hori itzul diezaiotela. CABLEMÓVILek unean-unean indarrean dauden tarifen arabera sortzen diren gastu administratiboak eta kudeaketakoak deskontatu ahal izango ditu. Saldoa CABLEMÓVILen aldekoa den kasuan ere egokituko zaio bezeroari konpentsaziorako eskubide hori. Bezeroaren betebeharrak beteko direla bermatzeko, CABLEMÓVILek hauek egin ahal izango ditu:
•Bezeroari aurrerakin bat eskatu, edo haren kontuan berehala diru-kopuru gehigarri bat kargatu, ordura arte sorrarazitako kopuruengatik.
•Bezeroari gordailu bat eskatu, ordaindu gabea, eskudirutan.
•Banku-abal bat eskatu, gehienez ere zerbitzuagatik hiru hilabetean egin den kontsumoari dagokiola kalkulatzen den batez besteko kopurukoa.
•Bezeroari tarifa handieneko, tarifa gehigarriko eta nazioarteko zerbitzuak mugatu.

Ekintza-mota hori kasu hauetan egin ahal izango da, besteak beste:
•Jarritako kreditu-mugak gainditzen direnean.
•KBO hauetan aurreikusitako arrazoietako batengatik edo kontratua suntsiarazi delako zerbitzua eteten denean edo bertan behera uzten denean.
•Bezeroak KBO hauek betetzen ez dituenean.
•Iruzur egiten denean edo zerbitzua KBO hauen arabera baimenik izan gabe erabiltzen denean.
•Ez ordaintzeko arrisku objektiboa dagoenean, halakotzat harturik hartzekodun-konkurtsoaren deklarazioa, adibidez.
Aurrekoa gorabehera, telefono finkoko zerbitzurako, KBO hauetan zerbitzu horretarako baldintza espezifikoetan xedatutakoa aplikatuko da.

4. DESKONEXIORAKO ESKUBIDEA
Mugikorreko zerbitzuetan, bezeroak tarifa gehigarriko eta nazioarteko deien zerbitzuak deskonektatzeko eskatu ahal izango dio CABLEMÓVILi. Horretarako, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura jo beharko du, eta dena delako zerbitzuetatik deskonektatu nahi duela adierazi. CABLEMÓVILek eskaera jaso eta gehienez ere hamar (10) egunera egingo du deskonexioa. Bezeroari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik deskonexioa adierazitako epean gertatzen ez bada, zerbitzuaren ondoriozko kostuak CABLEMÓVILen kontura izango dira. Bezeroak zerbitzu mota horiek aktibatzea nahi badu, edo ondoren desaktibatzea nahi badu, horretarako berariazko eskaria egin beharko du, Bezeroaren Arretarako dagoen zerbitzuaren bitartez.

5. CABLEMÓVILen ERANTZUKIZUNA ETA ZERBITZUAREN KALITATEA
Telefono finko edo mugikorreko zerbitzua aldi baterako eteten bada, bezeroak

eskubidea izango du kalte-ordaina jasotzeko, bi kopuru hauetatik handienaren neurrikoa:
a) Etendako zerbitzuek etenaldia gertatu aurreko hiru (3) hilabeteetan sorrarazi duten fakturazioaren batez bestekoa, zerbitzuaren aldi baterako etenaldiak bezeroari egiazki ondorioak eragiten dizkion denboran hainbanatuta.
Hiru hilabete baino gutxiagoko antzinatasunaren kasuan, egindako hilabete osoetan fakturatutako kopuru osoaren batezbestekoa hartuko da aintzat, edo benetako kontsumoko aldiaren arabera proportzionalki kalkulatutako hileko fakturazioaren zenbatekoa.

b) Etenaldia gertatu denean indarrean zegoen hileko ordainketa-kuota edo baliokidea halako bost, etenaldiak irauten duen denboran hainbanatuta.

Telefono mugikorreko zerbitzuaren erantzukizun-eremutik kanpo geratzen dira atzerrian CABLEMÓVIL ez diren beste operadore batzuek ematen dituzten ibiltaritzako zerbitzuak edo deiak (roaming-zerbitzua).
CABLEMÓVILek automatikoki ordainduko du kopuru hori, eta hurrengo fakturatik deskontatu, kalte-ordainaren zenbatekoa euro bat (1) baino handiagoa bada.
Zerbitzuan baja izateagatik bezeroari faktura igorri behar ez bazaio, kalte-ordaina bezeroak kasuan-kasuan erabakitako bidetik ordainduko da.
Aurrez ordaintzeko modalitateak dituzten abonatuentzat, saldoa doitzeko epea ez da gainerako abonatuena baino handiagoa izango.
Aldi baterako etenaldia ezinbestez gertatu bada, CABLEMÓVILek automatikoki konpentsatuko du etenaldia, bezeroari ordainketa-kuotaren zenbatekoa eta trafikoarekin loturarik ez duten beste kuota batzuk itzuliz, etenaldiak iraun duen denboran hainbanatuta.
Fakturazio-aldi baten barruan banda zabaleko Internetera sartzeko zerbitzua aldi baterako eteten bada, bezeroak konpentsazioa eskuratzeko eskubidea izango du, eta ordainketa-kuotaren eta beste kuota finko batzuen zenbatekoa eskuratu ahal izango du, etenaldiak irauten duen denboran hainbanatuta, baldin eta zerbitzuaren etenaldia sei ordu baino gehiagokoa izan bada, jarraian zein etenka, 8:00etatik 22:00etara bitartean. Kalte-ordaina hurrengo fakturan ordainduko da. Fakturan data, iraupena eta abonatuari dagokion konpentsazioaren zenbatekoaren kalkulua jasoko dira.
Aurreko paragrafoetan zerrendatutako kasuetan, CABLEMÓVILek bezeroari kalte-ordaina emango dio automatikoki, baldin eta etenaldiak bezeroaren kontratuan agertzen den bizilekua dagoen aldeari eragin badio edo, telefono mugikorreko zerbitzuaren kasuan, etenaldia gertatu denean bezeroa etenaldia gertatu deneko aldean zegoela baldin badaki eta etenaldiak iraun duen denboran beste gune batean kokatu ezin badu. Bezeroak etenaldi baten ondorioak pairatu baditu eta ez bada aurretik esandako terminoetan kaltetutzat jo, zerbitzuaren etenaldiaren kalteak pairatu dituela jakinarazi beharko dio CABLEMÓVILi, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren bitartez, etendako zerbitzua berrezarri eta hurrengo hamar (10) eguneko epean, eta, etenaldiak telefono mugikorreko zerbitzuari eragin bazion, etenaldia gertatu zenean geografikoki non zegoen adierazi beharko du. Informazio horrek bat etorri beharko du CABLEMÓVILen sistemetan jasota dagoenarekin.
Gehigarri moduan, ezinbesteak eragindako etenaldietan izan ezik, CABLEMÓVILek zerbitzuan honako

kalitate-maila hau eskaintzeko konpromisoa hartzen du: Zerbitzu baten etenaldiaren iraupenari dagokionez, konpromisoa hartzen du zerbitzua ez dela 48 ordu baino gehiagoan etenda egongo fakturazio-aldi bakoitzean. Konpromiso hori betetzen ez bada, MÁSMÓVILek hileko kuotaren zenbateko bera emango dio bezeroari kalte-ordain gisa, fakturazio-aldian etenak iraun duen denboran hainbanatuta.
Promozioak direla-eta bezeroak zerbitzuen hileko kuota osoan deskontu bat baldin badauka, zerbitzu horien promoziorik gabeko hileko kuota hartuko da kontuan kalte-ordainen ondorioetarako. Kalte-ordain horiek aurreko paragrafoetan aurreikusitakoei metatuko zaizkie.
Ondorio horietarako, zerbitzuaren etenaldiaren iraupena hau da: zerbitzua aktibatu eta gero zerbitzuak erabilgarri izateari uzten dion unetik zerbitzuaren funtzionamendu normala berrezarri bitartean igaro diren denboren batura. Bi gertakari hauetatik aurrena gertatzen dena izango da kontaketaren hasiera-unea: (i) Bezeroak matxura abisua ematen duen unea, edo (ii) CABLEMÓVILek zerbitzuaren erabateko etenaldia edo etenaldi partziala eragin duen gertakaria erregistratzen duen unea.
Aurreko konpromiso guztietako kalte-ordainen ondorioetarako, banda zabaleko Internetera sartzeko zerbitzuaren hileko kuota zerbitzu-multzoak kontratatzen diren kasuan zerbitzu guztiei batera ezartzen zaien hileko kuotaren % 50 izango da, baldin eta zerbitzu-sortaren kuota osoaren prezioan ez bada xehakatuta adierazten zerbitzu bakoitzari dagokion zenbatekoa (telefono-zerbitzua eta banda zabaleko Interneterako sarbidea).
Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta aldi bateko etenaldia ondoren aipatzen diren arrazoietako batengatik bada:
a) Bezeroek kontratu-baldintzak larriki ez betetzea, bereziki iruzur egitea edo ordainketan berandutzea, horrek zerbitzua aldi batean etetea edo bertan behera gelditzea ekarriko baitu.
b) Sarean kalteak eragitea, adibidez, bezeroak terminalak konektatzeagatik haien egokitasuna indarreko araudiaren arabera ebaluatu gabe.
C) Tarifa gehigarriko zerbitzuak ematen dituen bezero batek jokabide-kodea ez betetzea, ordainketa-kontratuaren titulartasuna berari dagokionean. Zerbitzuaren titular den Bezeroa da trafiko osoaren erantzulea, bai eta erabilitako zerbitzuena eta zerbitzuaren erabilera okerrarena ere. Aurrekoa gorabehera, CABLEMÓVILek, linearen titularra eta haren egoera identifikatu eta gero, kalteak ekiditeko eskura dituen neurriak hartu ere egin ahal izango ditu, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren bitartez zerbitzura sartzeko gakoen galera, lapurreta edo ebasketaren susmoa edo baieztapena jasotzen duen unetik edo iruzurra egon dela jakinarazten zaion unetik, edo, telefono mugikorreko zerbitzuaren kasuan, SIM txartelaren galera, lapurreta edo ebasketaren berri duenetik.
CABLEMÓVILek ez du erantzukizunik bezeroak edo beste edozein hirugarrenek zuzenean edo zeharka kalte edo galeraren bat jasaten badu, edo onuraren bat izateari uzten badio, zerbitzua eman ez delako edo arrazoi hauengatik gaizki eman delako: (i) funtzionamendu okerra, akatsak, hutsegiteak edo kalteak, CABLEMÓVILek emanak ez diren bezeroaren terminal edo gailuetan; (ii) Bezeroaren terminaletan edo gailuetan dagoen informazioa galtzea, aldatzea edo erabat edo partzialki kaltetzea, zerbitzuari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla eta; (iii)

CABLEMÓVILek zerbitzua desegoki emateagatik edo zerbitzua guztiz edo partez ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik eragindako beste edozein.
CABLEMÓVILek ez du erantzukizunik bezeroaren gailuen konfigurazio okerraren ondorioengatik, konfigurazioa CABLEMÓVILek egindakoa ez bada, edo bezeroak instalatutako aplikazioengatik, horiek MÁSMÓVILek emandako zerbitzuetatik aparte dagoen eta zerbitzu horiekin zerikusirik ez duen zerbait baitira.
CABLEMÓVILek bere sarearen bitartez seinalearen edukiaren isilpekotasuna bermatzen utziko duten neurriak hartuko ditu, eta une bakoitzean indarrean dagoen araudiak horretarako eskatzen dituen bitarteko teknikoak instalatuko ditu, eta ez du erantzukizunik izango bezeroak edo hirugarrenek eskuratutako elkarrizketa telefonikoen grabazioengatik, edo grabazio horiek erabiltzeagatik edo argitaratzeagatik eta, oro har, CABLEMÓVILi egotzi ezin zaizkion eta komunikazio telefonikoen sekretua urratzen duten ekintza edo omisioengatik. Salbuespena dira araudia betez ahalmena duten eragileek egindako intertzeptazioei une bakoitzean aplikatu beharreko legeriaren arabera CABLEMÓVILek dituen betebeharrak.
CABLEMÓVILek jakinarazten du jendearentzako dagoen telefono finko eta mugikorreko zerbitzua ematen duela, jatorriko linea eta konektatutako linea identifikatzeko erraztasunarekin. Bezeroak ez badu nahi bere telefono-zenbakia gainerako erabiltzaileek identifikatzeko moduan egotea, CABLEMÓVILek deia egiten duen linearen eta konektatutako linearen identifikazioa mugatzeko bitartekoak jarriko ditu haren eskura.
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan eskuratu ahal izango du bezeroak informazio hori.

6.BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ETA JAKINARAZPENAK

CABLEMÓVILek bezeroari arreta-zerbitzua eskainiko dio, eta zerbitzu horren barruan sartuko da telefono bidezko laguntza, 8:00etatik 22:00etara, urteko 365 egunetan, zerbitzuen erabilerari buruz (PCari edo zerbitzuetara sartzeko gailuari buruzko laguntza teknikoa kanpoan geratuko da beti).

Prezioari, fakturazioari, kalitateari edo zerbitzuen gaineko beste edozein gairi buruzko zalantzak argitzeko edo erreklamazioren bat egiteko, bezeroak Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura jo beharko du.
Kontsultak egiteko, bezeroak bere operadorearengana jo dezake, kontratua egitean berak adierazitako bideetatik.
Erreklamazioa bada, erreferentzia-zenbaki bat esleituko zaio, eta zenbaki hori CABLEMÓVILek jakinaraziko dio bezeroari. Erreklamazioa telefonoz egiten bada, bezeroak agiri bat eskatu ahal izango du, erreklamazioa aurkeztu izana eta haren edukia egiaztatzeko.
Dokumentu hori hamar (10) eguneko epean bidaliko da, eskatzen den egunetik zenbatzen hasita.
Erreklamazioa ebatzi eta gero, erreklamazioa aurkezteko erabili den bide beretik jakinaraziko dio CABLEMÓVILek bezeroari zer konponbide eman zaion.
Erreklamazioa egin eta hilabete bateko (1) epean ez badu gogoko erantzunik jaso CABLEMÓVILetik, bezeroak Kontsumoko Arbitraje Batzordeetara jo dezake, CABLEMÓVIL haien mende baldin badago, edo Telekomunikazioetarako eta Informazioaren Gizarterako Estatu Idazkaritzara, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, bide judizialera jotzeko eskubidearen kalterik

gabe.

7.DATU PERTSONALAK BABESTEA

CABLEMÓVILen zerbitzuak emateak berekin dakar bezeroaren datu pertsonalak tratatzea. Datu horiek baldintza orokor hauen eta pribatutasun-politikan aurreikusitakoaren arabera tratatuko dira.

7.1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?
Tratamenduaren arduraduna XFERA MÓVILES SAU ("CABLEMÓVIL") da (Helbide soziala: Parque Empresarial ¨La Finca¨, Paseo del Club Deportivo, 1, Edif. 8, 28223 - Pozuelo de Alarcón, (Madril, Espainia), IFKa: A82528548).
Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jartzeko, bidali mezu elektroniko bat dpo@orangeespaña.es. helbidera.
Zure datuak nola tratatzen ditugun jakiteko informazio osoa duzu gure pribatutasun-politikan. Webgune honetan kontsultatu dezakezu: www.cablemovil.es.
7.2. Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?
7.2.1 Eskaintzen dizkizugun zerbitzuak kontratatzeko eta emateko erabiltzen ditugun datuak helburu hauekin tratatuko ditugu (zure datuen tratamendu guztiei buruzko informazio osoa duzu hemen: www.cablemovil.es.

a) Kontratu-harremana kudeatzea.

Helburu honetan sartzen dira kontratuaren kudeaketa, fakturazioa edo kargatzea eta gure sailetako edozeinekin duzun interakzioaren kudeaketa (bezeroarentzako arreta-zerbitzua, zerbitzu teknikoa edo erreklamazioak, kontratazioko aldaketak edo gorabeherak artatzeko kalitate-zerbitzua). Era berean, barne hartzen ditu Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorrean kontratu-harremanari buruz aurreikusitako informazio-betebeharrak. Bezeroari bere eremu pribatura sartzeko aukera emateko ere tratatuko ditugu haren datuak. Webgunearen edo aplikazioaren bidez sar daiteke eremu horretan, eta bezeroak handik kudea ditzake bere tarifak, baita fakturak ikusi eta kontsumoa kontsultatu ere.
Informazio gehiago, hemen: www.cablemovil.es

b) Telekomunikazio-zerbitzuak ematea.

Helburu honen barruan sartzen dira telekomunikazio-zerbitzua emateko beharrezkoak diren eta zerbitzua emateari berez dagozkion hainbat jarduera, hala nola hauek:
•Komunikazioa komunikazio elektronikoen sare baten bitartez bideratzea, deia ezartzea eta desbideratzea (interkonexioa ere sartuta);
•Internetera sartzeko zerbitzuaren hornidura, kontratatutako zerbitzuetako bat baldin bada.
•Trafikoko eta interkonexioko datuak erregistratzea eta erabiltzea, fakturazioa egin ahal izateko edo, aurrez ordaintzeko txartelen kasuan, txarteleko saldotik deskontatu ahal izateko; bai eta ez-ordaintzeak gertatzen direnean judizioz kanpoko erreklamazioa eta erreklamazio judiziala egin ahal izateko ere.
•Gorabehera teknikoak detektatzea, kudeatzea eta konpontzea eta erreklamazioak ebaztea.
Beste operadore batetik edo beste operadore batera aldatzea eskatuz gero, gainera, jakinarazten dizugu zure identifikazio-datuak tratatu ahal izango direla. Kasu horretan, beharrezkoa izango da operadore emaileak hartzaileari datu horiek ematea, eragiketa hori egiteko. Operadoreen artean trukatutako datuak gai horretan

eskumena duten administrazio publikoek onetsitako eramangarritasun-zehaztapen teknikoetan une bakoitzean aurreikusitakoak izango dira.
Informazio gehiago, hemen: www.cablemovil.es

c) Kaudimena egiaztatzea.
Jakinarazten dizugu ezen, kontratatu aurretik, kreditu-informazioko sistema komunetan (adibidez, BADEXGUG, ASNEF, Experian edo Equifax) kontsultatuko dugula zure kaudimena, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aurreikusitakoaren arabera. Zure kontratazio-eskaeraren azterketako esparruan, beste elementu bat da hori, eta, horrekin batera, beste aldagai batzuk ere hartuko ditugu kontuan, hala nola sektorea, ea zorrik duzun gure taldeko beste enpresaren batekin edo iruzur-arriskua. Analisia negatiboa bada, gerta daiteke zure kontratazio-eskaera atzera botatzea, eta zuk, gero, zure kasua eskuz azter dadin eskatzeko eskubidea izango duzu.
Informazio gehiago, hemen: www.cablemovil.es

d) Zorra ez ordaintzearen datuak komunikatzea kaudimen-fitxategi komunetara
Zure betebehar ekonomikoei garaiz erantzun ezean eta horren ondoriozko zorra egiazkoa, mugaeguneratua eta galdagarria bada, indarrean den legeriaren babesean CABLEMÓVILi dagokion interes legitimoa oinarri harturik, zure identifikazio-datuak eta ordaintzeko dagoen zorrari buruzko datuak kreditu-informazioko sistema komunen ardura duten erakundeei jakinaraziko zaizkie (adibidez, BADEXGUG, Experian, ASNEF, Equifax, gertaera judizialen fitxategia, etab.), indarrean diren kreditu-informazioko sistemei buruzko xedapenekin bat etorriz. Informazio gehiago nahi baduzu gure interes legitimoari buruz, kontsultatu dpo@orangeespaña.es helbidean.
Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu pribatutasun-politika www.cablemovil.es webgunean.
e) Informazioa egiaztatzea.
Kontratazioaren esparruan ematen dituzun datuen zehaztasuna egiaztatu ahal izango du CABLEMÓVILek, iruzurra eta identitate-ordezteak saihesteko. Horretarako, informazio hau tratatu ahal izango dugu: identifikazio-datuak, harremanetarako datuak, gailuaren datuak, datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruenak (ordainketa-datuak), saltokiari buruzko informazioa edo kontratazioari, trafikoari edo nabigazioari buruzkoa. Halaber, emandako informazioa egiaztatu ahal izango dugu kontsultak eginez, hala nola Zerga Administrazioko Estatu Agentziari edo banketxeei.
Informazio gehiago, hemen: www.cablemovil.es

f) Iruzurraren prebentzioa.
Datuak konparatu egingo dira eskaeretan iruzurra prebenitzeko Hunter Sisteman agertzen diren telefonia-zerbitzuen eskaeren gaineko beste datu batzuekin, soilik zerbitzua onartzeko prozesuaren barruan iruzurra izan daitekeen informaziorik dagoen detektatzeko. Datu oker, irregular edo osatugabeak atzematen badira, zure eskabidea zehatzago aztertuko da; datu horiek halakotzat sartuko dira fitxategian, eta lehen aipatutako helburuetarako kontsultatu ahal izango dituzte Hunter Sistemari atxikitako entitateek eta honako sektore hauetakoek: finantzak, txartel-jaulkitzaileak, ordainketa-baliabideak, telekomunikazioak, rentinga, aseguratzaileak, zorren erosketa, higiezinak, energia- eta ur-hornikuntza,

aldian behingo fakturazioa eta ordainketa geroratua.
Hunter sistemari atxikitako entitateen zerrenda eskura egongo da webgune honetan: www.asociacioncontraelfraude.org
Iruzurraren aurkako Espainiako Enpresen Elkartearen aurrean erabil ditzakezu zure eskubideak, helbide honetara idatzita: Apartado de Correos 2054, 28002 MADRID.
Informazio gehiago, hemen: www.cablemovil.es

g) Informazio komertzial propioa.
CABLEMÓVILek bezeroen identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak erabil ditzake bere produktu edo zerbitzuei buruzko informazio komertziala bidaltzeko —hala nola hainbat motatako sustapenak, tarifa berriak edo hobekuntzak— bitarteko elektronikoen bidez, guztia ere Informazioaren Gizartearen Zerbitzuen eta Merkataritza Elektronikoaren 34/2002 Legearen, uztailaren 11koaren, 21.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta deiak egiteko interes legitimoan oinarrituta.
Informazio gehiago, hemen: www.cablemovil.es

h) Tarifarik onenei buruzko informazioa.
Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorraren 67.7 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, behartuta gaude gure bezeroei gure tarifarik onenei buruzko informazioa ematera urtean behin gutxienez. Horretarako, gure ohiko komunikazio-bideak erabiliko ditugu, bitarteko elektronikoak barne. Jakinarazpen hori aipatutako legean aurreikusitako legezko betebeharraren arabera egingo da. Zure datuak helburu horrekin tratatuko ditugu CABLEMÓVILen bezeroa zaren bitartean.

i) Ahalmena duten eragileekiko lankidetza
Jakinarazten dizugu ezen, indarrean dagoen legeriaren arabera, zure telekomunikazio-zerbitzuari buruzko zenbait datu gordetzeko eta honako hauei jakinarazteko betebeharra dugula: Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, beren funtzioak bete behar dituzten epaitegi eta auzitegiak, Ministerio Fiskala eta arlo horretan eskumena duten beste agintari batzuk. Helburu horrekin tratatuko diren datu-kategoriak identifikazio-, harreman- eta trafiko-datuak izango dira, CABLEMÓVILekin duzun kontratu-harremanaren barruan edo gure zerbitzuak ematean bildutakoak edo sortutakoak. Horrez gain, gure zerbitzuaren bidez egindako komunikazioei buruzko informazioa ere tratatuko da, hala nola egindako eta jasotako deiei buruzko informazioa, IP helbideak edo kokapen-datuak.
Informazio gehiago, hemen: www.cablemovil.es

j) Abonatuak kudeatzeko sistema
CNMCren 1/2013 eta 5/2014 zirkularretan xedatutakoa betez, jakinarazten dizugu ezen, telekomunikazio-operadore garen aldetik, zure identifikazio- eta kontaktu-datuak, kontratatutako zerbitzuari buruzko informazioa eta, batzuetan, kokapenari buruzkoa jakinarazi behar dizkiogula CNMCren Abonatuen Datuak Kudeatzeko Sistemari, legezko betebehar baten arabera. Adibidez, betebehar hori dela eta, informazioa ematen diegu larrialdi-zerbitzuei.
Sistema honen bidez eta aipatutako zirkularren arabera arautzen dira abonatuen gidak eta kontsulta-zerbitzuak ere. Abonatuaren datuak abonatuen gidetan edo kontsulta-zerbitzuetan agertzeko eta datu horiek merkataritzarako edo publizitaterako erabiltzeko, interesdunaren adostasuna beharko da. Interesatuak abonatuen

gidetan agertzea eska dezake, bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren bidez.

7.2.2 Jakinarazten dizugu ezen CABLEMÓVILek, bere zerbitzuak hobetzeko eta bezero-zorro fidelizatzeko interes legitimoan oinarrituta, Bezeroak gurekin kontratatuak dituen zerbitzuak nola erabiltzen dituen azter dezakeela Kontratuaren indarraldian eta Kontratua bukatu eta 18 hilabeteko epean, batik bat hiru helbururekin:
a. Oro har bezeroei eskaintzen zaien zerbitzua, eskaintza eta arreta hobetzea (esate baterako, tarifa berriak garatzea, itxarote-denborak murriztea bezero-arretan, deiak eraginkortasunez bideratzea bezero-arretako zerbitzura, etab.)
b. Oro har gure zerbitzuekin erlazionatutako gorabeherak, hobetzeko alderdiak eta beharrak detektatzea (esate baterako, antenekiko arazoak, estaldura- edo sare-arazoak, hornikuntza-arazoak, iruzurrezko trafiko irregularra eta gorabeheren arreta hobetzea).
Ekintza komertzialak
●Taldeko enpresen produktuen eta zerbitzuen eskaintza eta sustapenak bidaltzea.
●Kolaboratzaileen produktuen eta zerbitzuen eskaintza eta sustapenak bidaltzea.
●Zure trafikoaren eta nabigazioaren datuak erabiltzea norberaren, Taldearen edo hirugarrenen eskaintzak eta sustapenak bidaltzeko.
●Zure geolokalizazio-datuak erabiltzea norberaren, Taldearen edo hirugarrenen eskaintzak eta sustapenak bidaltzeko.
●Zure datuak Taldeko enpresei lagatzea. Profilak
●Hirugarrenek emandako informazioan oinarrituta.
●Kreditu-informazioko sistemen kontsultetan eta norberak egindako *scoring*etan oinarrituta.
●Behin kontratua bukatuta datuak erabiltzea.
DATUEN BABESA
●Datuak babesteari buruzko klausula irakurri dut, eta nire datuak hor jasotako helburu guztietarako erabiltzea nahi dut. Bestela, SMS bat edo mezu elektroniko bat bidaliko dizugu, zure pribatutasun-aukerak eskuz konfiguratzeko.

8. ZERBITZUA ETETEKO ARRAZOIAK
CABLEMÓVILek kasu hauetan eten ahal izango du kontratatutako zerbitzua:
• Bezeroak ez baditu ordaindu beharreko obligazioak bete edo saldoa agortu badu edota kreditu-muga gainditu badu.
• Bezeroak CABLEMÓVILi egiazkoak ez diren datu pertsonalak edo berariaz okerrak direnak eman badizkio, edo bezeroak hirugarren baten identitatea usurpatu badu.
• Bezeroak zerbitzua modu irregularrean edo iruzurrez erabili badu.
• Bezeroak iruzurrezko ordainbidea erabili badu edo iruzur egiteko arrazoizko arriskua badago.
Halakorik gertatzen bada, CABLEMÓVIL bezeroarekin harremanetan jarriko da zerbitzua eten aurretik, KBOak bete ez dituela jakinarazteko.
Bezeroak zerbitzuen ordainketa erabat edo zati batean atzeratzen badu, CABLEMÓVILek zerbitzuak aldi baterako eten ahal izango dizkio bezeroari, ordainketaren atzerapenaren berri izaten duen egunetik hasita. Aldez aurretik, bezeroari 48 orduko abisua emango dio etenaldia zein egunetan egingo den jakinarazteko, eta etenaldia ezin izango da egun baliogabean egin. Aurrekoa gorabehera, Telefono Finkoko Zerbitzuaren kasuan, bezeroak fakturen ordainketa erabat edo zati batean atzeratu badu eta atzerapena hilabete bat (1) baino gehiagoko bada (faktura aurkeztu zenetik), kontratatutako zerbitzuak aldi baterako eten ahal izango

zaizkio bezeroari, hamabost (15) egun lehenago abisua eman ondoren; abisuarekin batera, zerbitzua zein egun baliodunetatik aurrera etengo zaion ere adieraziko zaio, egun baliogabean ezingo baita etenaldia egin.
Ordainketan berandutu diren zerbitzuei baino ez die eragingo etenaldiak.
Zerbitzua eteteak ez du salbuesten bezeroa hileko kuotak ordaintzetik. Ez ordaintzeagatik telefono zerbitzua aldi baterako eteten bada, larrialdietako irteerako deietarako mantenduko da, baita sartzen diren deietarako ere, salbu eta hartzaileak ordaintzeko deiak eta telefono mugikorreko zerbitzukoak atzerrian. CABLEMÓVILek zor den zenbatekoa osorik ordaindu dela jakin eta hurrengo lanegunean berrezarriko du etendako zerbitzua.
Aldi baterako etenez gero, bezeroak erreklamazioa aurkeztu badu Kontsumoko Arbitraje Batzordeetan — CABLEMÓVIL haien mende badago— edo Telekomunikazioetako eta Informazioaren Gizarterako Estatu Idazkaritzan, CABLEMÓVILek ez du zerbitzua bertan behera utziko edo etengo erreklamazioa bideratzen ari den bitartean eta bezeroak zorraren zenbatekoa argi eta garbi kontsignatzen badu eta horren egiaztagiria CABLEMÓVILi bidaltzen badio.
Zerbitzuak une horretan indarrean dauden baldintzen arabera konektatuko zaizkio berriro, eta kontzeptu horrengatik indarrean dagoen kuota ordaindu beharko du. Etenaldian, alokatutako ekipoak erretiratu ahal izango ditu CABLEMÓVILek bezeroaren etxetik.
Bezeroak nahi duen eguna baino hamabost (15) egun lehenago eska dezake telefono finkoko zerbitzua aldi baterako etetea, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari bidalitako jakinarazpen baten bidez. Etenaldiak hilabete bat (1) iraungo du gutxienez, eta hiru (3) hilabete gehienez. Etenaldia ez da laurogeita hamar (90) egunetik gorakoa izango urte natural bakoitzeko. Kasu horietan, CABLEMÓVILek bezeroaren abonu-kuotatik kenduko du dagokion denborako zenbateko proportzionalaren ehuneko berrogeita hamar (% 50).
MÁSMÓVILen fakturak osorik edo zati bat ordaintzean hiru (3) hilabete baino gehiagoko atzerapena badago edo ordainketa atzeratzeagatik zerbitzuak bi aldiz aldi baterako eteten badira, CABLEMÓVILek eskubidea izango du zerbitzuak behin betiko eteteko eta kontratua suntsiarazteko. Nolanahi ere, zerbitzua eten ahal izango da indarrean dagoen araudiaren arabera, baldin eta bezeroak akats bat eragiten badu eta akats horrek sarearen osotasunari edo segurtasunari edo beste bezero batzuei ematen zaizkien zerbitzuei eragiten badie.
Neurri hori bertan behera utziko da bezeroak CABLEMÓVILi jakinarazten dionean akatsaren xede den ekipoa deskonektatu dela.
CABLEMÓVILek noizbehinka eten ahal izango ditu zerbitzuak, hobekuntza-lanak, konponketa-lanak, ekipamendu-aldaketak edo antzekoak egiteko. Hala ere, etenaldi horiek ahalik eta laburrenak izango dira eta, ahal dela, kontsumo txikieneko ordutegietan egingo dira.
Bezeroak onartzen du etenaldi horiek onetsi beharra daukala eta CABLEMÓVIL ez dagoela etenaldien ordaina ematera behartuta, kontratu honetako "CABLEMÓVILen erantzukizuna" atalean aurreikusitako kalte-ordainen zenbatekoan izan ezik.

9. IRAUPENA ETA AMAIERA

Kontratuak hogeita lau (24) hilabeteko iraupena izango du hasieran, eta automatikoki luzatuko da, epe berdinetan, hasierako indarraldia igaro ondoren, Telekomunikazioei buruzko

ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorraren 67.7 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Nolanahi ere, bezeroak eskubidea izango du epe horretan edozein unetan kontratua deuseztatzeko, klausula honekin bat etorriz.

MÁSMÓVILek kontratua suntsiarazteko eskubidea du, kontratuak azkentzeko arrazoi orokorrak eta KBOetan aipatutako arrazoiak direla tarteko. CABLEMÓVILek eskatuta kontratu hau automatikoki suntsiarazteko arrazoi izango da zerbitzua emateko CABLEMÓVILek daukan gaikuntza iraungitzea, horrek zerbitzua ematen jarraitzea ezinezkoa izatea dakarrenean, eta kasu horretan ez da sortuko bezeroak kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik. Bestalde, kontratua noiznahi suntsiarazteko eskubidea du bezeroak, eta, horretarako, ebazpen-jakinarazpena bidali behar du, nortasun-agiri nazionalaren edo baliokidea den identifikazio-agiri baten kopiarekin batera, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura, gutxienez Zerbitzuan baja ematea nahi duen eguna baino bi egun baliodun lehenago.
Kontratua azkendu egingo da, eta, ondorioz, zerbitzua behin betiko etengo da, zuzenbidean onartutako arrazoi orokorren ondorioz eta, bereziki, honako hauen ondorioz:
•Bezeroak hala erabakitzea.
•Kontratutik eratorritako betebeharren ez-betetze larria, bai eta zerbitzua fede onaren aurka erabiltzea ere.
•Zerbitzuaren ordainketa hiru (3) hilabete baino gehiago atzeratzea, edo kontratua aldi baterako etetea bi aldiz, ordainketa berandutzeagatik, KBO hauetan xedatutakoaren arabera.
•Zerbitzua baimenik gabe, legez kontra, iruzurrez edo bidegabe erabiltzeagatik. Arrazoi teknikoak, operatiboak edo zerbitzukoak direla-eta beharrezkoa den salbuespenezko kasuetan, edo zerbitzua behin betiko eteten bada, bezeroak itzuli egin beharko ditu CABLEMÓVILen jabetzako gailuak edo terminalak. Komunikazio elektronikoei eta komunikazio-sare publikoei buruzko datuak gordetzeari buruzko 25/2007 Legearen arabera telekomunikazioetako operadore gisa CABLEMÓVILi ezarritako betebeharrak aplikatuz, hark kontratua ezerezteko edo zerbitzua edozein unetan blokeatzeko edo eteteko ahalmena izango du, bezeroak emandako identifikazio-datuak faltsuak, okerrak edo osatugabeak direla egiaztatuz gero.

Bezeroak zenbakia gordetzeko eskaera egiten ez badu, kontratua edozein arrazoirengatik amaitzeak esleitutako zenbakia galtzea eragin dezake, kontratua amaitzen denetik hilabeteko epean.

10. KBO-AK ALDATZEA

CABLEMÓVILek aldaketak egin ditzake KBO hauetan, bai eta une bakoitzean indarrean dauden tarifetan ere. Nolanahi ere, aldaketak eragiten dion bezeroari jakinarazi beharko dio, aldaketa indarrean jarri baino hilabete bat (1) lehenago gutxienez, eta indarrean noiz sartuko den berariaz jakinarazi. Bezeroak ez baditu baldintza berriak onartzen eta hala jakinarazten badio CABLEMÓVILi, kontratua aldez aurretik eta inolako penalizaziorik gabe suntsiarazi ahal izango da. CABLEMÓVILen jakinarazpenetik hilabete bat (1) igarota bezeroak ez badu berariaz adierazi ados ez dagoela, edo iragarritako aldaketa indarrean jarri ondoren zerbitzua erabiltzen jarraitzen badu, ulertuko da onartzen dituela proposatutako aldaketak.

11.HELBIDEA, TELEFONO-ZENBAKIA EDO TITULARRA ALDATZEA

Bezeroak kontratatutako zerbitzuak jasotzen dituen helbidea aldatzeko eskatu ahal izango du, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren bidez. Arrazoi teknikoengatik CABLEMÓVILek ezin baditu helbide berrian zerbitzuak eskaini, bezeroak kontratua amaitutzat eman ahal izango du, aldez aurretik eta inolako penalizaziorik gabe.

Helbidea aldatzea teknikoki posible bada, bezeroak helbidea aldatzeagatik indarrean dagoen tarifa baino ez du ordaindu beharko.
Telefoniako edota Interneteko gailuak alokatuz gero, bezeroak bere ardurapean eraman beharko ditu zerbitzu horiekin lotutako ekipoak helbide berrira. Bezeroaren telefono mugikorraren edo finkoaren zenbakia aldatu behar denean, dela agindu teknikoengatik, dela indarrean dagoen araudiak hala eskatzen duelako, CABLEMÓVILek aldaketa eta horretarako arrazoiak jakinaraziko dizkio hiru (3) hilabete lehenago oharra bidalita –telefonia finkoaren kasuan–, eta esleituko zaion zenbaki berria jakinaraziko dio, baina bezeroak ez du kontzeptu horrengatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
Aurrekoa gorabehera, CABLEMÓVILek neurri egokiak hartuko ditu bezeroak telefono-zenbakia gorde ahal izan dezan operadorez aldatzen denean, hori erregulatzen duten araudiaren eta baldintzen arabera. Gainera, bezeroak noiznahi eska dezake telefono-zenbakia aldatzeko.
Titularra aldatuz gero, orain arteko titularrak zein berriak adierazten dute CABLEMÓVILen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari emandako datu guztiak zuzenak direla, eta osorik irakurri dituztela eta ezagutzen eta onartzen dituztela KBO hauek. Ordainketa-erantzukizun berriaren aldaketa-data, berriz, CABLEMÓVILek titular-aldaketa baieztatu eta hurrengo egunean izango da, eta aldaketa hori beharrezko dokumentazioa behar bezala beteta jaso ondoren gertatuko da. Aurrekoa gorabehera, titulartasun-aldaketak ez du egungo titularra salbuesten aldaketaren egunera arte sortutako zenbatekoak ordaintzetik.

12. LAGAPENA
CABLEMÓVILek beretzat gordetzen du KBO hauen ondoriozko eskubideak edota betebeharrak bere enpresa-talde bereko enpresa bati edo komunikazio elektronikoen hirugarren operadore bati transmititzeko eskubidea, bezeroaren berariazko adostasuna eskatu beharrik gabe; nolanahi ere, gutxienez hilabete (1) lehenago jakinarazi beharko dio.
Lagapena onartu nahi ez duen bezeroak aldez aurretik suntsiaraz dezake kontratua, inolako penalizaziorik gabe.

13. BALIOGABETASUNA
KBO hauen deuseztasuna, eraginkortasunik eza edo baliogabetasuna deklaratzeak ez du eraginik izango gainerako baldintzen baliozkotasunean, indarrean jarraituko baitute eta lotesleak izango baitira.

14. LEGE APLIKAGARRIA ETA FORU ESKUDUNA
Aldeak batzen dituen harremanari aplikatzekoa legeria Espainiakoa da, eta foru eskuduna, berriz, kasu bakoitzean kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko araudiak zehazten duena izango da, bezeroa kontsumitzailea bada. Hala ez bada, aldeak Madril hiriburuko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira, legokiekeen beste edozein foro alde batera utzita, termino eta baldintza hauen interpretazioaren edo aplikazioaren ondoriozko desadostasunak ebazteko.